

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 56/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa; honen bidez, aldatu egiten da Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta egoera horietan Arabako Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere**

Arabako Foru Aldundiak du eskumena gizarte zerbitzuen esparru osoko erakundeen legedia betearazteko, 27/1983 Legeko 7.c) artikulua ezarritako eskudantziari jarraiki (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzkoa), eta hori guztia Autonomia Estatutuko 10.12 artikulua bidez eta Espainiako Konstituzioaren 148.1.20<sup>a</sup> artikulua aplikatuz Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte laguntzaren arloan bere gain hartutako eskumen eskusiboen esparruan.

Eskumen horiek elkarren segidan emandako lege autonomikoetan jaso izan dira, legeok arautu dutelarik, lege sektorial gisa, gizarte zerbitzuen arloa. Hala, gaur egun, 12/2008 Legeak (abenduarien 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) bere 41.3 artikulua Foru Aldundiei esleitzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuei hornitzeko eskumena, ezik Eusko Jaurlaritzari zuzeneko ekintzarako eskumenarekin esleitzen zaizkionak.

Esparrua hori dela, 39/2006 Legeko 16. artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa), Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez ematea Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu katalogoko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Arabako Lurralde Historikoan, bere eskumenaren arabera hala dagokionean. Horretarako, aintzat hartuko dira 12/2008 Legean jasotako eskumen banaketa (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa), eta 39/2006 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren babesean beteko du zeregin hori (xedapen gehigarri horretan, foru aldundien ezaugarri bereziak berariaz onartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemari lurralde erakundeek parte hartzen baitute).

Bestalde, bere eskumenari dagozkion gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatzeke, kudeatzeko, emateko eta gauzatzeko funtzioak betetzen ditu Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea 21/1988 Foru Arauaren bidez eratu zen, garai hartako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailari atxikitako erakunde autonomo gisa, eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak arautzen du haren antolaketa eta egitura. Horiek horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen sare publikoaren kudeatzailea da eta, beraz, berak dauka ezintasun egoerak baloratzeko eskumena.

Hala ere, 2014ko uztailaren 22an, Diputatuen Kontseiluak 36/2014 Foru Dekretua onartu zuen, zeinak arautu baitzuen mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, egoera horietan gertatuz gero, Arabako Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

Foru Dekretu horrek 20. artikuluan dio ezen ezintasun egoerak baloratzeko irizpideak 1971/1999 Errege Dekretu abenduaren 23koan daudela jasota, zeinaren I. Eranskineko A) atalean hau baitio: "kapitulu bakoitzeko aplikazio arau zehatzetan ezartzen da zenbat denbora igaro beharko den diagnostikoa egin eta tratamendua hasi eta balorazio egintzaren artean. Epe horretan itxaron egin behar da, ezinbestean, urritasuna finkatua dela joko bada; dena delako prozesu patologikoa nolakoa, halakoa itxaroteko epearen iraupena".

Hori gorabehera, eta nahiz eta gehienetan uste izaten den beharrezkoa dela epe jakin batean itxarotzea urritasuna iraunkortzat joko bada, kasu batzuetan, ordea, ez da beharrezkotzat jotzen epe batez itxarotzea, zeren lesioak "berez" baitira behin betikoak, eta, nolahi ere, okerrera egiteko modukoak, hala nola istripu larrietan edo arin garatzen diren gaixotasun neurodegeneratiboetan.

Hori dela eta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, pertsonentzako arreta hobetze alde, uste du beharrezkoa dela salbuespena egitea egoera horietan daudenen kasuan, eta ez eskatzea diagnostikoa egin eta tratamendua hasi eta ezintasuna baloratzeko unea arteko itxaroteko gutxieneko epe hori betetzeko betebeharririk, babes sisteman ahalik eta arinen sartu ahal izan daitezen.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean dagoela, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko, eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, eta bai ere egoera horietan Arabako Gizarte Zerbitzuen zerbitzu eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura, eta, hala, haren 20. artikuluan 3. paragrafo berri bat sartzea.

"3. Salbuespenez, pertsona batek istripu bat jasan badu eta ezintasun larri bat eragin badio, iraunkor bihurtu ahal dena, edo arin garatzen den gaitz neurodegeneratibo bat diagnostikatu bazaio, baloratzeko eskabideak izapidetzeko kontuan hartu beharko da ea jasandako lesioak iraunkorrak diren edo ez; balorazioa ahalik eta lasterren egingo da, hala dela jaso ostean –erietxean alta eman ondoren– Osakidetzak emandako osasun txostenean edo foru sareko egoitza zerbitzuei atxikitako medikuek edo gizarte zerbitzuen udal sareko medikuek, edo Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatearekin (MUFACE) hitzartutako osasun zerbitzuetako medikuek, Indar Armantuen Institutuko medikuek (ISFAS) edo Mutualidad General Judicial (MUGEJU) mutualitateko medikuek egindako osasun txostenean.

Hala ere, balio epe bat izango du balorazio horrek, eta berrikusi ere egin beharko da irizpide teknikoaren arabera."

BIGARRENA. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

HIRUGARRENA. Agintzen da Foru Dekretu hau ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2016ko abuztuaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua*

**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**